


**EUSKARA ETA ELIZA**  
**ELIZ ITZULTZE LANAK**  
**1963-2003**



*“Somos un hombre, con un idioma y un estilo. Dentro del idioma está el hombre, y dentro del hombre su estilo. Las correspondencias entre idioma y estilo es*

*fundamental aclararlas. La estructura íntima del idioma es una poética que lo produce y lo mantiene vivo. Si muere nuestro idioma, se está borrando nuestro carácter (nuestra poética muere)”*

Jorge Oteiza, *Quosque tandem*.

“Mais, au Pays Basque, rien d'étonnant à ce que les Basques célèbrent le Seigneur en basque, à l'intérieur de leur culture. [...] Bien plus, à votre tour, il appartient à vous les jeunes générations de poursuivre dans cette ligne et d'inventer votre synthèse entre la Foi chrétienne et votre culture.

C'est vraiment votre devoir. Ne pas le voir, ne pas le faire, seraient erreur d'appréciation et grave irresponsabilité. Si vous ne le faites pas, qui le fera?”

Piarres Molères, Baionako apezpikua.

## 1. Fedea eta kultura

Inkulturazioa, UZEIko hiztegiak dakarkigunez, errebelaturiko egia eta fedea historiko bihurtzea da: leku eta garai jakineko kultur erakunde eta sistematan mamitzen eta adierazten dira orduan. Erlijio errebelatuak traszendentetzat hartzen ditu erlijiozko egia eta fedea: ez historiatik sortutzat. Baina derrigorrez kultura eta hizkuntza historikotan azaldu beharra daukate, kulturaztaturik eta nolabait kultural eta historiko bihurturik.

Leku eta garaia mugatu beharrean, gure lantxo hau egite-rakoan, Euskal Herriko azken berrogei urteak izan gura nituzke asmotan: 1963.eko abenduaren lauan hain zuzen ere, Vaticanoko II. Kontzilioaren barne, Sacrosanctum Concilium aldarrikatu zen: Liturgia Santuari buruzko konstituzioa. Ikus horren 36. puntua, adibidez.

Kontzilioak liturgia herri-hizkuntzatan ospatzeko bideak zabaldu zituenean, berehala hasi ziren han eta hemen liturgiaren itzulpen lanak. Era berean, konstituzio horren aurretik emandako pausuak onartuak eta baloratuak izan ziren.

Lan handi bat egin da, beraz, euskal kultura eta fedearen arteko sintesi hori egin nahirik. Fedearen kulturazpen hau, enkarnazioaren legearen fruitu bezala har dezakegu. Hala ere, kulturazpenari buruz gehienetan misio herriak direla eta sortu da eztabaida, askoz gutxiago landu izan da gai hau herri minorizatuen kasuetan.

Sintesi hau lortu beharrak, fede bera eta bakarra kultura aniztasunean mamitu beharra... gatazka eta tentsio iturburu izan da... Itun Berriaren garaietatik hasita. Eliza Katolikoa unibertsala da, zer esanik ere ez. Hala ere, Elizbarrutia ez da Erromako ordezkari. Kontzilioaren eraginpean hau gero eta argiago ikusi izan da. Latinezko berdintasunak, tokian tokiko hizkuntza, kultura eta aberastasunaz aniztasunaren elkartasunera iristeko bidea egin du.

Vaticanoko II Kontzilioaren ustetan, grazia eta kultura elkarri begira daude: alde batetik, salbamenezko mezua kultur molderen baten iragarri eta agertu behar da derrigor, bestela ezin daiteke mamitu; eta bestetik, kultura aberastuta eta garpenerako indarberrituta gelditzen da Ebanjelioari esker. Honek guztiak Jainkoaren portaeran aurkitzen du bere oinarria, Hark ere, bere burua ezaguerazteko, kultura baten gorputza hartu beharra izan zuelako. Gizaki egitearen bitartez, guztien Jainkoa "lekututa" gelditu zenez, elizeak ere, salbamenerako dei unibertsala egitean, lekuan lekuko egin beharra dauka.

Vaticanoko II Kontzilioan ugariak dira hau argitzen diguten testuak. Ez da gure lanaren helburua, baina labur-labur, hona GS 54-58. Baita ere, gogora ditzagun *Pacem in terris*, 95-96, eta *Populorum progressio*, 40, entziklikak.

Liturgian otoitzak, irakurgaiak, sermoiak, kantuak euskaratu eta euskaldundu beharra zegoen. Hoiekin batera katekesirako eta erlijio gaiak, teologia... euskaraz izatearen premia berez jaio zen.

### 1.1. Euskaratu eta euskaldundu

Jainkoaren Hitzak, sakramentuek eta minesterio apostolikoak ematen die elizei haien jatorriko batasuna. Baina elementu guztiok ez dira eredu bakarraren bidez adierazten. Gizaldietan zehar kristau mezua ia kultur molde bakarrean zabaldu izan bada ere, Kontzilioan bizkortutako eliz-kontzientziak kulturarekiko elkarrizketa indartu du. Kristau mezua eta elizaren osagaiak kultur molde desberdinetan agertu beharra dute, beraz.

Eta kultura baten barruan hizkuntzak duen garrantzia nabarmena eta ukaezina da. Berau dugu benetako komunikabidea. Kultura osoa ez bada ere, hizkuntza dugu kultur ezaugarri nabarmena.

Kultura eta hizkuntzaren arteko batasuna berezkoa da. Hizkuntzarekin batera balore batzuk, ohitura eta izakera batzuk hartzen ditugu. Lantxoaren hasieran jarri dugu aipamen bat, Jorge Oteitzarena. Hona hemen behin On Joxe Migel Barandiaranek Martin Ugalderi esan omen ziona:

“[Cultura se define] por la forma en que se concibe la vida; por la manera en que se trabaja y se gana el sustento; por la forma en que idea las relaciones sociales; por la manera en que norma sus actividades; por la forma en que elige los fundamentos de su vida espiritual. [...] Y todo eso lo hemos recibido a través del Euskera. [...] Abandonar ese camino constituiría abandonar nuestra raíz, quedar como extranjeros en nuestra propia tierra, empequeñecer nuestra existencia.”

Askoz hizkuntza poetikoagoz, euskal aidez eta bertsolarien senaz, Fernando Aire “Xalbador” koblakari ospetsuak, gozota-

sun eta sendotasunez, herriaren eta hizkuntzaren arteko lotura estua kantatu zigun bertso ahaztezin hauen bitartez:

[...] mendian bizi arren, dut ikustekoa  
gaztainaren aldaxkez jauntzirik pagoa.

[...] herria da gorputza, hizkuntza bihotza;  
bertzetik berextean bitarik bakotxa,  
izaite horrendako segurra hil hotza.

[...] hizkuntza ta herria berex ez doatzi,  
berex nahi daukute konpreniarazi  
bata bertzea gabe ez daizkela bizi.”<sup>1</sup>

Euskal kulturaren eta euskararen alde jokatzeko justiziaren aldeko ekintzaren alderdi bat zen, eta hala da orain ere kulturazpenaren preminaz eta lekuan lekuko berezitasunaz jabetzen den elizarentzat. Honetan elizak pobreen aldeko aukera garbia egiten du, kulturarik makalenaren ondoan jartzean. Ebanjelioaren arabera, baztertua bilatzen du, indarra emateko eta gara dadin ahalbideak eskaintzeko.

Lehen zeregin bezala, beraz, euskaratzen lan erraldoia hartu zuen bere gain Elizak: liturgiarako baliapideak, Idazteunak, kantuak, etab.

Euskal kultura, dena den, ez da hizkuntzak duen garrantzi horretara mugatzen: euskaratuz aparte euskaldundu egin behar du bere lana. Hitzak itzuli bai. Era berean, hitz egokia baino harago euskal sena, esamoldea, barne pentsakizuna, izakera.

Gai hau aurrerago ere jorratuko dugu, salmoak euskalduntzearen orduan. Itzulpen zintzoaz aparte, erritmoa, kantatzeko aproposa izatea... bada hor gauza asko kontuan hartzekoak, euskal elizak erronka gisa zituenak eta dituenak: euskaratu bai, euskaldundu ere bai.

---

<sup>1</sup> XALBADOR, *Odolaren mintzoa*, Zarautz, 1976, 179-180.

## 1.2. Idazteko dagoen historia

Euskal Herriak bere fedea ospatu eta bizitzeko behar zituen testuak euskalduntzen lan bikaina eta erraldoia egin zuen Elizbarrutien artean eraturako batzordeak. Hura baino lehenago izan ziren ahalegin batzuk eta saiakera partikularrak. Batzorde horretatik kanpo ere, egin da lan ugari. Hala ere, batzorde horrek iraunkortasunaz jokatu izan du hainbat urtean, Elizbarruti desberdinetako kideek osatu dute, haien partaide izan dira fraide eta apaiz sekularrak, mojak ere tarteko...

Gaur egun, esku artean hainbat material dugunean, ez gara konturatu ere egiten hor egon den hainbat jenderen lanarekin.

Euskaltzaindiak 1968. urtera arte ez zuen egingo Arantzazuko bilera, euskara batuaren hasikinak finkatuz. Ordurako gure batzordeak hainbat lan eginda bazeukan, euskal herriak ulertu eta erabilteko moduan. Hori guzti hori ere aztertuko dugu labur-labur.

Orain gure esker ona baino ez dugu papereratu nahi, eta horretarako Luis Baraiazarraren berbak erabiliko ditugu, bizkaiera eder gozoan:

“Gauza handia da ezer ez dan lekuan edo baso zarratuan bidea zabaltzea... Gero erraz eta eroso ibiltzen gara bide horretan zehar, berez egina eta beti hortxe egona balitz legez. Sortzaileari, zerbait abiarazten dauanari, oinarriak ezarten dituanari mirespena eta esker ona zor jakoz; gehiago oraindino euskerari jagokonean, eragozpenak askoz be ugariagoak eta handiagoak izaten dira-eta. Argi dago, gurean halako ekintza txalogarriak eragin dituenak bihotza maitasunez bero, burua argi eta irudimena zoli izan dabena.”<sup>2</sup>

<sup>2</sup> BARAIAZARRA, LUIS, “Munduko lehenengo mezea euskeraz” in Karmel 240 (2002), 73.

## 2. Historia apur bat

### 2.1. Aurrelariak

Kontzilioko Konstituzio garrantzitsu horren aurretik, baziren eginak lan batzuk Euskal Herrian. Hor eta hemen, sarri elkarrenganako ezagutzarik gabe ere, lehen saioak eginak ziren, eta argitara emanak ere.

Gerraostean, aipa dezagun bere erabilera eta garrantziagatik, **Nikolas Ormaetxea Orixek** (1888-1961) Tours-en, argitara emandako Urte guziko meza-bezperak liburua, 1950 urtean, ohi denez euskaraz emana baina Kontzilioaurreko ereduaz egina.

Kritika ezin hobekak izan zituan liburu honek:

“Amaikatxo eliz-liburu argitarazi dira euskaldunen artean, meza, otoitz, eta edonolako eraspenez duin-duin. Eliz-liburu egoki ta beterik ordea, ez geunkan. ...iñoiz euskeraz sortu eliz-libururik bikainenaren iabe gaituzute.”<sup>3</sup>

Itzulpen ederra, apaingarri bikainak, edizio zaindua... Oso gutxi zegoen hizkuntzan opari ederra suertatu zen.

Badugu arabar bat ere aipatzeko hemen, **Erraimun Olabide**, s.j., (1869-1942), Gasteizen sortua. 1931. urtean argitara emana zeukan Itun Berria (Bilbao, 1931). Aita Olabide hil eta gero argitara eman zen berak egindako Bibliaren itzulpen osoa: Itun Zar eta Berria (Bilbao, 1958).

Lan ederra, zein mamiz eta zein azalez, dio Aita Santi Onaindiak. Hona, Euskal Herriak aspaldi itxaro zuen Biblia katolikoa oso-osorik euskaraz argitara emana.

Mitxelenaren hitzetan:

“Iñolaz ere, euskaldun batek letra-saillean iñoiz burutu duen egitekorik larrienetakoa da eta are larriagoa agertzen zaigu eus-

<sup>3</sup> IBIÑAGABEITIA, in *Euzko-Gogoa*, 9-10 (1951) 61.

kaldun berri batek egin zuela gogoratzean. Itzuli ere etzuen nolainai egin, gogo beroz. arreta andiz eta jakite ugariz baizik.”<sup>4</sup>

Iparraldean **Xavier Diharce Iratzeder** (Donibane-Lohitzune, 1920) dugu, Beloken beneditar eta euskal poeta sinbolista aparta, Lizardi eta Lauaxeta olerkarien jarraitzaileetarikoa idaz estilo sinbolista horretan. 1963 urtean argitara eman zuen Salmoak bilduma osoa, Aita Gabriel Lerchundi beneditarraren musikaz apaindurik.

Bizkaian izan zuen eraginagatik, hona hemen, **Jaime Kerexeta** (1918-1998), Elorrioko semea. Lan asko euskaratu eta argitaratu zituen. Hona ale batzuk: Jesukristo Gure Jaunaren Barri Ona. Lau Ebanjelioetatik itzez-itzez atera ta laurak alkartuta, Donostia, 1960. Liburuaren akabuan, liturgiarako aurkibide bat jarri zion, mezatarako lagungarri. Eguneroko Meza, Bilbao, 1963, Aita Onaindiarekin batera Missale Romanum euskaraz, urte gutxitan argitara eman ziren 5.000 aleak agortu zirela. Salmoak, Bilbao, 1964. Iratzeder eta Lerchundiren edizioa bizkaieraz. Eta azkenik, bizkaieraz erabili dugun lehen Biblia osoa: Euskal Biblia, Bilbao, 1976.

Atal honetan ere, lerro batzutan azal dezagun 1959ko ekainaren 21ean, Bizkaiko Arrazolako parrokian, munduko **lehenengo meza euskaraz**.

Errito melkitaz ospatu zen meza, baina euskaraz. Errito melkita, antza, errito bizantinoa omen da arabieraz esana. Bilboko Seminarioko grekerazko irakasleak, Francisco Ballester Viú, agian baimena zuen errito horretan meza emateko. Asmoa mamitu, liturgia euskaratu eta jai giroan ospatu zen, bertako parroko zen J. A. Retolazaren eraginpean.

Egitaraua: goizeko 11etan Meza, ostean euskal dantzak. Arratsaldean, 5etan, sinesgabeen aldeko elizkizuna: errosarioa,

<sup>4</sup> MITXELENA, LUIS, in *Egan*, (1959) 85.



etab. Ondoren, pilota partidak. Esku-programan ere elizkizunari buruzko katekesi edo azalpen antzeko bat.

Gaur egun, ohikoa zaigu meza euskaraz ospatzea, eskuartean ditugu meza-liburu bikainak, Idazteunak, etab. Baina zelako emozioa ez zuten izango euskaldun haiek, garai ilunetan, euskarazko materialak lehendabizi erabilerakoan?

## 2.2. Sacrosanctum Concilium

Kontzilioak, 1963ko abenduan, liturgia herri hizkuntzaz ospatzeko bideak zabaldu zituenean, berehala hasi ziren han eta hemen liturgiaren itzulpen lanak.

Euskal Herrian Iparraldekoak izan ziren lehenak: 1964eko udaberrian, beren Apezpikuaren oniritziarekin, dozena bat apaiz bildu ziren eta Belokeko beneditarren monastegian egin zituzten itzulpen lanak.

Urte beran, azkenetan, Donostiako Gotzai Lorentzo Bereziartuak itzulpen taldea sortu eta lan hori egiteko agindu zuen Donostiako Elizbarrutirako.

Nafarroako euskal parroketako apaizei Orixeren Meza liburu erabiltzeko esan zitzairen, hasiera hartan. Baina berehala, Donostiako taldearen itzulpenak eskuratu zituzten eta beraiek ere lanean hasi ziren, gauza beharrezkoenak prestatzen eta argitalpen batzuk egiten.

Nafarroan, gauza bitxia gertatu zen: hiru itzulpen erabiltzen zirela, alegia. Adibidez, Beran eta Lesakan, Donostiakoa; Igantzi eta Arantzan, Nafarroakoa; eta Zugarramurdi eta Baztango zenbait herritan, Baionakoa. Eliztarrak erabat nahasturik omen zuden, Aita Basilio Sarobek idatzi zuenaren arabera.

Arabako Gotzaiak erabaki zuen, bere Elizbarrutian liturgia euskaraz ospatu behar zuten parroketako apaizek aski zutela Donostiako Elizbarrutian erabiltzen zituzten liburuak erabiltzea.

Bilboko gotzaiak, berriz, Jaime Kerexetak aurre hartan itzuli eta argitaratu berria zuen Meza liburua erabiltzeko agindu zien bere apaizei.<sup>5</sup>

Hauek izan ziren hasierak. Euskara liturgian erabiltzeko erabakia hartu bezain laister ahalegin guztian hasi ziren taldeak lanean, beharrak aginduta. Eta gaurtik begiratuta burugabeke-ria badirudi ere elkarren berririk gabe horrela lanean hastea, ez dugu ahaztu behar une hartan euskaraz eta lehenbailehen egiteari begiratu zitzaiola.

Berehala sortu zen behetik gorako eragina, lan horiek denon artean elkaturik egiteko eta, gauza errazenetan behintzat, itzulpen berdintsua eta euskara bateratsuan emana lortzeko.

Adibide argigarri bat jartzen digu Eustasio Etxezarretak: Mezaren Eguneroko zatiak bost argitalpenetan emanak zeuden euskaraz eta ez inola ere bateratzerik ez zegoelako, baizik elkarren berri jakin gabe eginak zeudelako. Honetaz gainera, Erromak hizkuntza bakoitzean itzulpen bakarra egitea eskatzen zuen.

Horrela gauzak, 1966ko udaberrian Euskal Herri osoko beste talde bat bildu zen Urretxun, Jaunaren Deia izeneko Lazkaoko Beneditarren aldizkariaren zuzendaritzak horretarako hartu zuen ekimenaren bitartez.

Egindako lanaren berri emateko eta beste liturgi gaiak aztertzeko hiru eguneko ikastaro bat eratu zuten 1966ko uztailean. Hona batzar haretako lehen erabakia:

“Gure Gotzai Jaunek lenbailen elkar deitu eta Barruti arteko gizon iaioen Batzorde bat jarri dezatela beren zaipean, Elizbarruti oietan liturji berritzeari dagokion guzian alik eta batasun geiena irixten lan egiteko.”<sup>6</sup>

<sup>5</sup> Bilboko Gotzaitegiko Aldizkari Nagusia, 173 (1965), 41.

<sup>6</sup> Jaunaren Deia, 17 (1966), 24.

Bitartean Beloke eta Donostiako taldeek aurrera zeramaten, bakoitzak bere aldetik, eskuartean zeukaten lana: Mezako ebanjelio eta epistolen itzulpena.

Hala ere, Urretxuko ekitaldi eta ikastaroez izan zuten eragina liturgia itzulpenetarako batasun kontzientzia sortzeko.

1967ko udazkenean, Euskal Herriko liturgiaren itzulpen taldeko batzuek bilkura egin zuten Iruñean, Erromako Liturgia Batzorde Nagusian idazkari zegoen Bugnini jaunarekin.

Batzar horretako erabaki eta ondorio izan zen:

“Egunero erabili ohi diren zatietan ahalik eta itzulpen batasun handiena lortzen ahalegintzea. Irakurgaietan eta otoitzetan, ostera, euskerari buruz herriaren egoera kontuan harturik, askatasun handiagoz jokatzeko, hiru argitalpen onartuz: lapurdierazkoa, gipuzkerazkoa eta bizkaierazkoa.”

Ondoren, lapurdierazko azpibertsio bat egin ohi da zuberotarrez. Izan ere, euskalki bakoitzeko ordezkarien iritzian, orduko ezin egin argitapen bakarra, baldin gure herriak, entzun hutsez, kristau mezua jaso behar bazuten.

### **2.3. Elizbarrutiarteko talde ofiziala**

1968. urtean gaude, urte esanguratsua benetan, alde sozio-politikoan kontuan badugu, baita ere euskal eliza eta euskal kulturari begira.

Urte horretan azaldu ziren Erroman Mezako irakurgai berriak, otoitz berriak eta beste sakramentuetarako testuak. Beraz, lan ugaria zen egin beharra eta gainera itzulpen hauek eta hauen argitalpenak erabili behar ziren aurrerantzean elizan, lehengoak baztertuta.

1968ko urtearen azken aldera, hegoaldeko hiru Elizbarrutietan gotzai berriak izendatu zituzten: Arturo Tabera, Iruñea eta Tuterarako; Jazinto Argaña, Donostiarako; eta Jose Maria Zirarda, Bilboko Gotzai Administratzaile.

Bizkaiko Elizan, apaiz talde batek itxialdia egin zuen Derioko Seminarioan. Gogoan ditugu Xabier Amurizak kantatutako bertsook:

“Inork nahi badau gu Deriora  
zertan gatozen aditu,  
agonian ta preso dagoen  
herriak bialdu gaitu...”

Euskal Herriaren zapalketa jasanezina jakinerazi eta salatuz gain, Euskal Elizari ere salaketa bazegoen, herriari inposatutako baloreen eta giza egoeren sustatzaile bezela jokatzeko zuela eta, aginte politikoarekin batera.

Eliza librea, eliza pobrea, eliza dinamikoa eta eliza indigena aldarrikatzen zen. Eta giza eta herri eskubideen begirune orokatuaren barruan jartzeko zen euskal kulturaganako eta hizkuntzaganako arreta eta ahalegin sortzailea.

Gizarte mailan herri-kontzientzia indartu eta bizkortu egiten da, baita euskara batuaren aldeko premina eta bultzada ere.

Euskaltzaindiaren Urrezko Ezteguetan Arantzazuko Batzar ospetsuak, euskara baturako bidea gomendatuz eta bultzatuz lexikoan, morfologian, sintaxian eta ortografian, hainbat saltsa sortu zuen “H” ospetsua onartuz.

Ingurugiro hortan, Tabera Gotzaiburuak deiturik, Lizarran hegoaldekoek bilkura egin eta erabaki hau hartu zuten:

“Aurrerantzean elkarrekin egitea liturgi-itzulpen guztiak.”

1969ko urtarriletik hasita, Elizbarruti guztietako taldeak Elizbarrutiarteko lan talde bakarrean bildu ziren eta elkarrekin egin dituzte, bai liturgia testu berrien itzulpenak, bai lehen talde bakoitzak bere aldetik itzulitako enberrikustea.

Elkarlan horretatik sortu zen itzulpena, nagusiki testu berdintsua izanik ere, ez zen, ordea, berdin-berdina: beharrezko irizten zen hiru argitalpen egitea, lehen aipatu dugun arrazoiengatik.

Hiru argitalpenok, hona hemen: Baionarakoa, Donostia-Iruñea-Gasteizerakoa eta Bizkairakoa. Izan ere, aditz laguntzailearen berezitasunaz gainera, hor agertzen ziren beste berezitasun batzuk ere, hiztegiari eta joskerari lotuak.

Bizkairako taldeburu Aita Lino Akesolo izan zen, eta geroxeago Karmelo Etxenagusia. Haien lanaren fruitu izan ziren:

- *Mezaren Egunerokoa* (Altareko liburua), 1971.
- *Jaiegunetako Irakurgaiak*, C urtea (atalka), 1971.
- *Irakurgai Liburua I* (A urtea), 1972.
- *Irakurgai Liburua II* (B urtea), 1972.

#### **2.4. Euskarazko eliz-idaztietarako batzordea**

Urte horietan euskarari buruzko egoera nahiko nahasia eta gogorra zen. Elizbarrutiarteko Batzordea gero eta kezkatuagoa zegoen. Horregatik, 1973ko otsailean, Loiolako bilkuran, berri eman zitzaien Hego Euskal Herriko Gotzaiei, euskarari buruz arazo sakona aztertu beharra zegoela adieraziz, eta gainera Elizak jokabide bat jabetasun osoaz erabaki beharra zeukala jakinaraziz: giro berrian aurkitzen zela Eliza.

Donostiko Gotzai Laguntzailea, Jose Maria Setien jauna, izendatu zuten euskal Elizbarrutietako Gotzaiek, beren izenean eta bidezko ziren laguntzaileen bitartez arazo honen azterketa sakona egin zezan, gero berau oinarri harturik Elizak bere bideak erabaki ahal izateko.

Azterketa honen ondorio izan zen **1975**eko uztaillean eratu-tako *Eliz-argitalpen Nagusietarako Elizbarruti-arteko Batzordea*.<sup>7</sup>

Elizak ofizialki, Gotzaiak buru zirela, bere egin zuen planteamendu hau eta onartu zituen erabaki hauek.

<sup>7</sup> Bilboko Gotzaitegiko Aldizkari Nagusia, 293 (1975), 415-417; Iruñea eta Tuterakoa, 8 (1975), 415-419; Donostikoa, 306 (1975), 535-540.

Eliz-idazti ofizialetan euskara bi eratara erabiltzeko asmo honek, ez zuen esan nahi Elizak euskararen batasunaren ardurarik ez zuenik, gutxiago batasunaren kontra ibiltzerik. Azken batean, planteamendu pedagogikoa izan zela kontuan esan gura dugu.

Zein izan zen batzordearen erabakia?

Bi jokabide bereiztu ziren euskararen erabileran:

a) Liturgiaren alorrekoa, hau da: herri xehearentzat eta euskarari dagokionez eskolatu gabe izateaz gainera entzun hutsez eta ez irakurriz kristau mezua jaso behar duenarentzat egiten den euskara moldea.

Sail honetan beharrezko ikusten zuen batzordeak euskalkietan errotua dagoen euskara erabiltzea, nahiz-eta ulerkuntza eragozten ez duen baturantzako zenbait puntu onartu, deklinabidean, aditz laguntzailean eta hiztegian.

Liturgi alorrean, testu berdintsuak aterako ziren, baina hiru argitalpenetan. Gogora dezagun: 1. Baionakoa; 2. Donostia, Gasteiz, Iruñea eta Tuteran; 3. Bilbokoak. Testuotan, irakurgai eta otoitzetan badago nahiko alderik. Eguneroko ohikuneetan, batasun handiagoa dago.

Hauen adibide ditugu Bilboko Elizbarrutian argitaratutakoak: *Mezaren Egunerokoa eta Igandeetako Mezako Irakurgaiak*, Baionako liturgi argitalpenak, edota *Orduen Liturgia*, (1977). Baita ere, parrokiatarako zenbait kristau-ikasbide.

b) Euskara batuan, euskaraz eskolatua den herriarentzat egiten diren argitalpenetan erabilia. Honela daude, adibidez, eliz-artxiborako parroki liburuetan erabiliko den euskara moldea, ikastolarako kristau ikasbideak, Elizbarrutietako Gizarte Idazkaritzen gaiak, Euskal Herriko Gotzaien zenbait pastoral idazki eta Eliz arteko Bibliaren itzulpen lanak.

## 2.5. Lankideak

Milaka izan dira Elizbarrutiarteko talde honek elkarlanean eman dituen orduak, eta gehienak liturgia itzulpenetan izan badira ere, talde berak egin ditu katekesi-lanak, Gotzai-idazkien itzulpenak edo Bibliarenak.

Lankideen zerrenda osoa ematea zaila da. Zerrendarik osatuena Eustasio Etxezarretak dakar, baina 1978 urtean idatzitako artikulua da.

Itzultzaileen prestutasuna azaltzeko, adibide bat, Basilio Saroberen esanetan. *Orduen liturgia* euskaratzen eta euskalduntzen, puntako euskal poetak aritu ziren. Adibidez, poesia taldean ari ziren lagunci beste batzuk bildu zitzairen: Juan Mari Lekuona, Bitoriano Gandiaga, Iratzeder, Lino Akesolo, Agustin Apaolaza, Mikel Zarate...

## 3. Argitalpenak

### 3.1. *Liturgia gaiak*

Asko eta asko dira arlo honetan argitara emandako lanak. Zerrendarik luzeena Lorentzo Zugazagak dakar. Hona hemen zenbait lan, jakinik zerrenda hau osatu gabe dagoela, eta hutsune nabarmenak egongo direla:

- *Meza liburua* (1984).
- *Irakurgaiak* (1988).
- *Umeen bateoko elizkizun-liburua, Bizkaieraz* (1970).
- *Sendotzako sakramentua* (1977).
- *Ezkontzako sakramentua* (1971).
- *Penitentziko sakramentua* (1975).
- *Hiletak ospatzeko elizkizun-liburua* (1974).
- *Gaixoen sakramentuak* (1977).

Oraintxe bertan, 2003, ikusi du argia Gaixoen sakramentuari buruzko liburu berrituak. Iaz, 2002, Ezkontzako sakramentuari dagokiona.

Eten gabe daude barrizatzen eta berrargitaratzen liburuok. Berriz ere esan behar dogu, zerrenda hau oso gain gaisetiko delako, besterik gabe, lanaren nondik norakoa ikusteko Bizkaian.

### **3.2. Kristau-ikasbideak**

70.eko hamarkadan argitaratutako Kristau ikasbidea dugu lehena, Espainiako *Catecismo Escolar* delakoaren itzulpena: 1, 2, 3, 4, 4b eta 5. mailatan.

Hurrengo hamarkadan, 80koan, honako hauek itzuli ziren jatorri espainiarra dutelarik:

- *Gure Aita* (1980, 1985).
- *Jesus Jauna da* (1982, 1985).
- *Hau da gure fede* (1985, 1987).

Baita ere Kristau Alkartearen Katekesia, haur liburua, katekistaren gidaliburua eta Gurasoen liburua maila bakoitzean. Egokipena da, gaztelaniaz, gipuzkeraz eta bizkaieraz:

- *Haurtzaroko katekesi prozesoa: Egitaraua* (1985).
- *Jainkoa gure Aita da* (1985).
- *Jesus ezagutu nahi dugu* (1986).
- *Jesusen bideak jarraitzen ditugu* (1986).
- *Jesusen jarraitzaile alkarte barruan* (1987).
- *Jesusen jarraitzaile gure bizitzan* (1988).
- *Jesusen jarraitzaile bidez doan herrian* (1988).

1996. urtean katekesi taldea berritu eta indartu egingo da. Tartean gotzai berriak datoz hona (Iruñea eta Tuteran, Gasteiz, Bilbao) eta katekesi arduradun berriak Nafarroa eta Araban. Hona zenbait lan:



a) Umearoko katekesirako Elizbarrutiarteko ibilbidea:

- *Esnatu* (1998).
- *Etorri eta ikusi* (1999).
- *Jarraitu nirekin* (2000).
- *Zatoze ospatzera* (2001).

Urte bakoitzerako, haur, familia eta katekistarentzako gaiak daude. Proiektu hau bidean dago oraindik.

b) Katekumenotza erako helduen katekesia. Ibilbide barria. Euskara batuan, helduentzat.

c) Euskal bideoak.

Bideo sorta ederra euskaratu da, batuan, Donostiako Haurren Katekesi Ordezkaritzak eta Idatz argitaldaria hasitako ekimena jarraituz.

1994.ean hasi zen talde bezela, Elizbarrutietako ordezkariak gain (Baionakoa eta hego aldeko guztiak), Idatz, Irakaskuntzako Euskal Erlijiosoen Federakuntza eta Euskal Herriko Ikastolen Elkartearen partaidetzaz.

30 bideotik gora daude euskaraz iadanik.

### **3.3. Idazteuna**

Lan polita dugu honetan, gaur egun.

- *Itun berria* (1980).

Hainbat urtean egindako lana irakurgaiak itzultzen... Azkenik bere goia jo zuen Itun Berriaren argitalpen honetan. Euskara aldetik batuaz dago, baina euskara samurra, garbia, ulerterrezaz emana. Hainbat eta hainbat

argitalpen izan ditu ordutik hona. Amaieran Gogoetarako gaiak eta Liturgiarako pasarteak aurkitu dira.

- *Itun Berria* (1983).

Bibli Elkarte Batuek argitara emana Pax argitaletxean,  
Itzultzen zebilen Elizen arteko Bibliaren lehen fruitua.

- *Elizen arteko Biblia* (1994).

Argitalpen zaindua eta apaina. Euskal Elizbarrutiek eta Bibli Elkarte Batuak elkarrekin emana, Eusko Jaurlaritzaren, Nafarroako Gobernuaren eta Akitaniako Lurralde-Kontseiluaren diru-laguntzaz.

Euskara batuan, nahiz eta gogorragoa izan ulertzekoa.

Aurkibide analitikoa, leku-izenen aurkibidea, hiztegia batua-euskalkiak, eta mapak.

1571. urtean, Nafarroako Erregina zen Joana Albretekoak aginduz, *Testamentu Berria* euskaraz eman zen geroztik, hainbat saio eta itzulpen egin dira. Hona, azkenik, euskal itzulpen ekumenikoa!

Hauek dira Biblia osoari buruzko 2001eko maiatzeko datuak: Biblia handitik ia 14.000 ale saldu dira; formatu txikiko Bibliatik, 3.500. Lehen urte eta erdian izan zuen irteerarik handiena; geroztik, urteko 1.000 ale inguru zabaldu dira<sup>8</sup>.

- *Itun Berria: grekoa, latina, euskara* (1996).

Aurreko lanaren fruitua, itzultze lanetan erabilia. Edizio kritikoa, beraz.

### **3.4. Orduen liturgia eta salmoak**

Azken puntu moduan utzi dut, berak duen garrantziagatik. Liturgiaren eraberritzearekin batera, musikak garrantzia handia izan du hemen.

<sup>8</sup> IRIZAR, RAMON, "Elizen arteko Biblia, berriro", in Senez 23 (2001), 11. oharra, internetez jasotako aipamena.

Irakurgai arteko salmoetan eta Orduen liturgiako salmoak kantatzerako, ez du balio itzultze hutsak: hor kantatzeko moduko euskara behar da.

1963. urtean argitara emana zen Beloken, Aita Iratzederrek euskaratu eta Aita Gabriel Lertxundik musikatutako salmoak.

Aita Iratzederrek 150 salmoak euskaratu zituen itzulpenari erritmo eta neurri bereziak jarritz. Hura ohartua zen Euskal Herrian abestiak 5/4 // 5/4 silaben neurrira hagitzen ongi egokitzen zirela.

Adibidez, Basilio Saroberi jarraituz:

*Ogi zerutik (5) / etorria (4);  
Zu zera gure (5) / poz guztia (4).*

Salmo bakoitzak bizpau errepika ditu neurri berean, eta gaur egun euskal parroketan kantatzen dira horrela.

Salmo horien testua gipuzkeraz jarri zuen Aita Bazterrika beneditarrak, eta bizkaiera eder jasoan Aita Lino Akesolo karmeldarrak: Salmoak (Bilbao, 1964). Liburu honek, salmoez gain, sarrerak, aurkibideak eta kantikak ditu, Orduen Liturgia kantatzeko moduan.

Mezako erantzun-salmoak egiterakoan, Itzulpenen poesia taldeak, Igande eta Jai bakoitzerako salmoak eta errepikak jorratu zituen. Taldekideak: Juan Mari Lekuona, Karmelo Etxenagusia eta Tomas Otxandorena.

Dena dela arazo bat sortu zen: Irakurgaien Liburu Ofizialean zein erantzun-salmo saila aukeratu? Iratzederrena ala Orixerena?

1977ean *Orduen Liturgiako* eskuliburua atera zen. Bertan, beharrezkoak ziren aldaketak egin ondoren, Orixeren bertsioaren aldeko aukera egin zen. Aukera hori egiteko Juan Mari Lekuonaren iritzia kontuan hartu zen, berak baitzuen Orixeren Salmoek poesi kutsu handia zutela.

Lantalde haren jokabidea nahiko argi daukagu, Eustasio Etxezarretari esker. Urteetan ibilia idazkari lanetan, eta hona haren azalpena:

“Orduen Liturgiako gorazarreen itzulpenerako laguntza eskatu genion B. Gandiagari; 1975eko azaroan hasi ginen lan horretan; Joan M<sup>a</sup> Lekuona eta B. Gandiaga izan ziren hutsik egin gabe lan horretan arituak; izan ziren beste batzuk noiz-behinka etortzen zirenak, hala nola: X. Iratzeder (hau batez ere hasieran), J. M<sup>a</sup> Aranalde (apaiz gipuzkoarra), M. Zarate, T. Otxandorena (apaiz nafarra)...; ni ere tartean izaten nintzen beti, ez olerkari gisa, liturgian aditu eta arduradun gisa baizik, zer komeni zen itzultzea haiei esateko eta beste hainbat xehetasunetarako; hamabostean behin egiten genuen bilera, astelehenetan, egun osoko bilera, eta urtebete pasatxo iraun zuen lan honek.

Bitoriano Gandiagak zer itzuli zuen zehatz esatea ez da erreza. Badira gorazarre batzuk X. Iratzederrek lehendik itzuli ta zeuzkanak eta Orduen Liturgian sartzeko egokiak zirela ikusi genituenak, Baina, harrigarria badirudi ere, beste gorazarre guztiak elkarrekin eginak dira (ez hau honek eta beste hau hark), elkarrekin baizik. Badira gorazarre batzuk Orixeren itzulpena oinarri hartu eta gero zuzendu edo aldatuak izan zirenak; gainerakoak berriren berri eginak izan ziren; hori bai, gaztelaniazko edota beste hizkuntzatako eredu bat jartzen nien aurrean erreferentzia gisa, baina euskaraz bere forma berezia ematen zioten eta batzuetan edukia bera ere beste bide batetik eramaten zuten.”<sup>9</sup>

Eta ezin utzi hemen aipatu gabe, 1968an Bertizen hasi zen lanaren fruitua Hegoaldeko euskaldunen artean parra-parra erabili izan dena: Gora Jainkoa! liburua.

Hona sail osoa:

- *Gora Jainkoa! 1* (1972).

<sup>9</sup> Eskutitzez eman zidan informazio hau Eustasio Etxezarretak, 2003-05-10 eguna duen izkribuan hain zuzen ere.

220 kanta euskaraz, 10 latinez eta 102 gaztelaniaz. Bizkaierazko bertsioa dut nik eskura: mezaren eguneroko atalak herriarentzat, eta abestiak euskaraz eta latinerazkoak baino ez dakarz. Hori bai, Aita Iratzederren bertsioa zaintzearren, hainbat berbak bere esanahia dakarte orriaren behealdean bizkaieraz, jendearen ulergarri.

- *Gora Jainkoa! 2* (1979).

Liburuak bide ematen du salmoak abesteko, bai Iratzederren neurrien modura, bai Orixeren erara.

- *Orduen liturgiako Doñuak* (1980)

Honetan Orixeren Salmo guztiak abesten ahal dira bertan agertzen diren doinuekin. Kantikak erabiltzeko doinuak ere bertan dira, ederki paratuak.

- *Gora Jainkoa! 3* (1984).
- *Gora Jainkoa! 4* (1986).
- *Gora Jainkoa! 5* (1986).
- *Gora Jainkoa! 6* (1986).
- *Gora Jainkoa! 7* (1998).

#### **4. Beste ekimen batzuk**

Elizbarrutiarteko itzultze talde ofizialaz gain, badago beste lanik ere erlijio gaiak euskaratze sail honetan. Orain artekoa hutsunez beterik bazegoan, atal hau zulorik betea izango dela aitortu behar dut hasi aurretik.

Lan hau bete beharra izango duela jakin arren, hona hemen ekarpen batzuk.

##### **4.1. Jakin taldearen ekoizpena**

*Jakin* taldeak, frantziskotarrek sortua, bere ekarpena egin dio euskal Elizari buruz, gai honi buruzko ekarpenak eginik.

Lehen aldian, 1956-1969 urteak, *Jakin* aldizkariaren artikuluen ia ia %20 erlijioari eskainiak ziren, Joan Mari Torrealdairen ikerketaren arabera.<sup>10</sup>

Aldizkaria debekatu zutenean, *Jakin* sorta izena erabiliz jarraitu zuten gaiak jorratzen liburu itxuraz. Aldi honetan hiru liburu ditugu aipatzeko: *Kultura eta Fedea* (1971), *Erljioa hazitzepean* (1971) eta *Marx eta Jesus Europan* (1975).

Bigarren aldia, 1977tik aurrera, aldizkaria ateratzeko baimen berrituarekin, ikerketa 1977-1999 tartetan egina da. Bertan argitarata emandako artikuluen %1 baino ez da erlijio gaiari eskainia!

Beheradaka nabarmena beraz. Hala ere, bertan aurki ditza-kegu Leonardo Boff eta Jon Sobrinoren artikulua bana, eta 95. zenbakian agerturiko gai nagusia: Euskal Herriko Eliza katolikoa azken hamarkadan. Autore bakoitzak urte muga desberdina hartzen du. Vaticanoko II. Kontzilio ondorengoa da gehien bat ikertua, dena dela.

Talde honen lan bikain bat ezin utzi hemen aipatzeko: Nimegako Katekesi Institutuak egindako *Kristau Bidea* (1975), Paulo Agirrebaltzategik zuzendutako lantalde batek egin zuen itzulpena. Interesgarria oso, sarreran Jose Mari Rementeriak egindako lantxoak: *Euskal "Kristau Ikasbideen" historia laburra*.

#### 4.2. Aita Agustin Apaolaza

Estibalizko beneditarrak, itzulpen taldean lan eginaz gain, baditu bere liburuak argitara emanak. *Bibliarekin otoitzean* deritza saila, eta testu itzulia gain, lectio divina delakoaren fruitu diren gaiak, gogoetak eta otoitzak dakartzate liburuok.

- *Salmoekin otoitzean* (1982).
- *Asiera* (1985).
- *Irteera* (1987).
- *San Markos-en Ebanjelioa* (1990).

<sup>10</sup> TORREALDAI, JOAN MARI, "Hitzaurrea" in *Jakin* 116-117 (2000), 11-21.

### **4.3. UZEI**

Paulo Agirrebaltzategiren zuzendaritzapean 1987 urtean argitara eman ziren *Erljioa 1* eta *Erljioa 2* hiztegiak.

### **4.4. Idatz**

Donostiako Elizbarrutiko argitaldari honek, Elizbarrutiarteko lantaldearen lanak argitara eman aparte, atara ditu zenbait lan. Itzulpen gisa, Luis Gonzalez-Carvajal egilearen *Hona gure fedea. Unibertsitarietzako teologia* (1990), Jose Antonio Pagolaren *Nazareteko Jesus. Gizon eta berri on* (1986), edota Bizkaiko talde batek egokitutako *Izan bihotz!* (1987) kanta eta otoitz liburua.

### **4.5. Deustuko Unibertsitatea**

Erljio kulturaren Bilduma argitaratzen ari da, Jose Luis Zinkunegiren zuzendaritzapean eskuliburu bilduma polita: euskaraz sortuak batzuk, itzulpenak gehienak. Hogeitik gora titulu izango dira bilduma osatzerakoan.

## **5. Azken laburpena**

### **5.1. Lan bikaina eta oso ona da arlo bonetan Elizak egin duena**

Joseba Intxaustik idatzi duenez:

“Euskal Herrian ere bertoko Elizak itzuli ditu Bibli eta Liturgi testuak euskarara. Aitortu behar da egin den lanean kalitate estimagarria, eta bikaina ere, lortu dela, hain zuzen elizgizon ezagunen lumei esker, eta azpimarra daiteke, gainera, eliz euskararen hizkera estandarrak funtsean batasun eta jator-tasun egokiak erdietsi dituela (batez ere erabilera mintzatura-ko testuak direla gogoan bada).”<sup>11</sup>

<sup>11</sup> INTXAUSTI, JOSEBA, “Eliza eta euskal kultura” in *Jakin*, 95 (1996), 53.

Iritzi berekoa dugu Jose Antonio Pagola:

“Itzulpen-alorrean egindako lan hau kontzilio ondorengo ekintzarik baliotsuenetakoa jo genezake, zalantzarik gabe, eta Elizak euskal kulturaren mesedetan egindako ekarpenik garrantzitsuenetakoa.”<sup>12</sup>

Euskal kulturari egin dion ekarpenaz gain, euskal Elizari egin dion onura ere bada. Alde batetik, Elizbarruti guztietako taldekideek osatua da, iraunkortasuna emanaz bere lanari, hainbat urtetan jarraibidea izan duena. Bestetik, ordena erlijioso desberdinetako, apaiz sekularrez eta laikoz osatutako taldeak lankide zintzoan jardun izan dute. Ez dakit nik erdaraz mintzo den Elizan halako lankidetzarik eman ote den. Kasu honetan, gure kulturaren pobretasunak aberats egin gaitu Eliz lankidetzan.

### ***5.2. Biblian, liturgian eta katekesian aurreratu dena, ez da oraindik lortu teologia mailan***

1996 urtean honela idatzi zuen Intxaustik:

“[...] euskal gizartean oro har kulturaren alde abian dagoen normalizazio-prozesua. Hona hemen argigarri izan litezkeen gertakari batzuk: pentsamendu unibertsal badu euskaraz bere itzulpen-bilduma ederra Klasikoak deritzan horretan, baina, aldi berean, ez daukagu kristau pentsamendu eta autore maisuentzat testu-sorta baten proiekturik ere.(...) Garapen kultural berrietatik at geratuz doan Eliza bere minorizazio kulturalera doa zuzen, edo behintzat goraka doan euskal kulturatik erbestean galduko da.”<sup>13</sup>

Gaur egun, zorionez, egoera aldatu da. Badugu, alde batetik, Deustuko Unibertsitateak abian jarri duen teologia bilduma.

<sup>12</sup> PAGOLA, JOSE ANTONIO, “Eliza katolikoa Euskal Herrian Kontzilioaren ondoren” in *Jakin*, 95 (1996), 137.

<sup>13</sup> INTXAUSTI, JOSEBA, *idem*, 54.



Hainbat euskal liburu argitara emanaz, itzulpenak zein propio euskaraz sortutakoak. Bestetik, hor dago Idatz, Donostiako argitaldaria atera dituen hainbat lan teologiko euskaraz.

Itzulpena gauza handia izanik ere, hor ez da bukatzen lana, geure hizkuntzaz eta gure pentsakeraz sortutako teologia ekoizpen faltaz. Horretarako monografia eta tesina asko falta da, gure hizkuntzaz emanak, horietatik euskal tesiak egin ahal izateko.

### **5.3. Kulturizazioaren arazoa dugu bertan**

Euskaratu bai, euskaldundu ere bai. Euskal nortasuna uhar-te bat bihurtu da kultura mediterraniarrak egiten duen itsaso handi eta erraldoiaz inguratutik. Txabi Ikobaltzetaren hitzetan:

“Kulturaztapena kezkarik entzunenetakoa gertatzen ari da garai batetik hona. Eliza barruko euskararen erabilera estetikoak eta euskal eledun hutsak diren eskualdeetan apaizik ez izanak jite hiritar, burokratiko eta posmodernoko eliz izaera bultzatu dute. Kulturaztapenak ez badu kolonizazioa esan nahi, planteamenduak gaur erabat beste erako hidea hartu beharko luke, euskal kasuari dagokionez.”<sup>14</sup>

Galdera onak egitea beharrezkoa da halako gai honetan. Hala ere, dena esan behar dugu, galderak egitea soluzioak aportatzea baino askoz errezagoa egiten zaigu. Horrek ez du gure ahalegina arbuiatzen.

### **5.4. Unibertsaltasuna eta tokian tokiko izatea**

Unibertsaltasuna, katolikotasuna Eliz hizkuntzan eta praktikan behar ditugula, salatu izan zaigu.

Erantzun bikoitza dugu bertan. Teologia aldetik, XX. mendeko teologian argi dago “katolikotasunak” ezer frogatzekotan

<sup>14</sup> IKOBALTZETA, XABIER, “Eliza katolikoa Euskal Herrian Kontzilioaren ondoren” in Jakin, 95 (1996), 121.

inkulturazioaren premia eta betebeharra frogatu digula, ez kontrakorik.

Teoriatik praktikara, euskal Elizak eta euskaltzaleek ere misio lanetan nahiko frogatu dute espiritu unibertsal hori.

Eta baliteke, lan horretan kontraesan larria aurkitzea. Intxaustiren berbetan:

“Baina geurera gatozela, joandako horiek guztiek erbestean egin duten inkulturazioaren parean eta ordainetan, zer da hemen bertan Elizak Euskal Herriari, herri bezala, eman edo kendu diona? Irizpide berdinekin jokatu ote da misio-herrietan eta sorterrian?”<sup>15</sup>

### ***5.5. Apologiaren eta salakuntzaren artean***

Tarte horretan ari da gure Elizaren zeregina azken urteotan. Bada itsurik, baita ere begibakarrik. Aztertu dugun urteotako lana, jakinik lan hau hutsunez betea dagoela oraindik, ez da paperontzira botatzekoa. Badu lan bikain gozorik. Bestetik, bada akatsik eta zereginik oraindik ere. Horietariko bat itzulpen lan mardul eta erraldoi honen historia idaztea, adibidez. Honako hauek ohar solte batzuk baino ez dira, hortik eta hemendik hartuak, ni baino jende prestuagoak osatu eta zuzendu beharko lituzkeenak.

### ***5.6. Irtenbidea***

Euskal Eliza euskaldunagoa eta “elizagoa” egitea, horra hor gure lana.

Euskaldunagoa, euskaraz gehiago, euskal nortasunaren hizkuntza bezala. Eta hizkuntzatik harago, euskal izaera berresku-

<sup>15</sup> INTXAUSTI, JOSEBA, idem, 61.

ratu eta zabaldu gurean, euskalduna bere azala eta bere mamian.

Elizagoa, hitz hau erabiltzerik balego, Ebanjelioaren eskabide eta pozbidetik hurrago... gaur egun dagoena baino. Munduko behartsu eta herri pobreekin elkartasunean, Eliza pobretu zaigun une honetan. Eliza Erregetzaren zerbitzuan duela zentzu osoa jakinik, Herri honen bidaide izan dadila.

## **6. Bibliografia**

### **6.1. Oinarrizko bibliografia**

ETXEZARRETA, EUSTASIO, "Euskal Herriko Elizaren Jokabidea euskarari buruz" in *Euskera*, XXIV (2. aldia) (1978), 829-855.

SAROBÉ, BASILIO, "Mezako irakurgian gainean Nafarroako apai-  
zek egindako lana" in *La Verdad*, 2002-05-04; 2002-05-12;  
2002-05-19; 2002-05-26; 2002-06-01; 2002-06-08 eta 2002-06-  
15.

ZUGAZAGA, LONTZO, "Euskal Herriko elizearen jokabidea itzulpen arloan" in *ASKOREN ARTEAN*, *Euskalkia eta Administrazioa*, Bilbo, 2002, 119-146.

### **6.2. Bibliografia osagarria**

AGIRRE, JOXEAN, "Eliz testuak, euskararen zorroztarri" in *Gara*, 2002-10-02.

APEZETXEA, JUAN, "La Iglesia y el euskara" in *Diario de Noticias*, 2002-05-17.

ARREGI, JUAN JOSÉ, ETXEZARRETA, EUSTASIO, ZAPORAIN, JOSÉ MARIA, *Cantos religiosos populares*, in *ASKOREN ARTEAN*, *Canción Popular Vasca*, Lasarte-Oria, 2001, 158-189.

ASKOREN ARTEAN, *Eliz-idaztien batzordea*, eskuizkribua, Donostia, 1975-07-15.

BARAIAZARRA, LUIS, "Munduko lehenengo mezea euskeraz" in *Karmel* 240 (2002), 73-86.

- BILBOKO GOTZAITEGIKO ALDIZKARI NAGUSIA, 173 (1965), 41.
- COMISION INTERDIOCESANA PARA PUBLICACIONES ECLESIASTICAS EN EUSKARA, Estado actual del euskara en el área religiosa y planteamiento de futuro, eskuizkribua, Donostia, 1986-08-01 (Hizkuntza Plangintzarako III. Jardunaldien barne egindako ekarpena).
- ERRAMOUSPE, MIKEL, "La foi au coeur des cultures" in Fededunak 3 (2002), 14-15.
- ETXEZARRETA, EUSTASIO, Don Jose Maria Zapirain, euskal liturgi kantuaren eragile, eskuizkribua, Donostia, 1989-06.12.
- ETXEZARRETA, EUSTASIO, "Eliz testuen itzultzaileak" in EIZIE, Antologia III, Donostia, 2002, 19-33.
- ETXEZARRETA, EUSTASIO, "Euskal Elizbarruti arteko Itun berria. Itzulpen-xehetasunak historiaren argira" in Euskera XXVI (2. aldia) (1981), 199-217.
- ETXEZARRETA, EUSTASIO, Testu liturgikoen itzulpena, eskuizkribua, Donostia, 2002-10-02 (EIZIEko ekitaldiko hitzaldia).
- ETXEZARRETA, EUSTASIO, Tomas Garbizuren ekarpena Eliz kantutegian. Aportación de Tomás Garbizu a la música religiosa, eskuizkribua, Donostia, 1990-08.
- IBIÑAGABETIA, in Euzko-Gogoa, 9-10 (1951), 61.
- IKOBALTZETA, XABIER, "Eliza katolikoa Euskal Herrian Kontzilioaren ondoren" in Jakin 95 (1996), 121.
- INTXAUSTI, JOSEBA, "Eliza eta euskal kultura" in Jakin 95 (1996), 53.
- IRIZAR, RAMON, "Elizen arteko Biblia, berriro" in Senez 23 (2001), internetez jasotako aipamena
- IRIZAR, RAMON, La traducción del leccionario litúrgico en el contexto de la traducción bíblica general, Lección inaugural del Curso 2002-2003, Vitoria-Gasteiz, [2002].
- MITXELENA, LUIS, in Egan (1959), 85.
- MOLERES, PIERRE, "Dokumenduak" in Fededunak 3 (2002), 11-12.
- ONAINDIA, SANTI, Euskal literatura IV, Bilbao, 1975.
- ONAINDIA, SANTI, Euskal literatura VI, Donostia, 1990.
- OSPITAL, PEIO, "Fedea kulturari xertatu" in Fededunak 1 (2002), 3-7.

PAGOLA, JOSE ANTONIO, "Eliza katolikoa Euskal Herrian Kontzilioaren ondoren" in Jakin 95 (1996), 137.

REMENTERIA, JOXE M., "Euskal Kristau Ikasbideen historia laburra", in NIMEGAKO KATEKESI INSTITUTUA [Euskal bertsoaren zuz.: PAULO AGIRREBALTZATEGI], Kristau Bidea, Oñati, 1975, XVII-XXIV.

REMENTERIA, JOSE MARI, "Hiru liburu barri" in Comunicación / Alkarren barri 115 (2003), 47-49.

TORREALDAI, JOAN MARI, "Hitzaurrea" in Jakin 116-117 (2000), 11-21.

XALBADOR, Odolaren mintzoa, Zarautz, 1976.

**2003-06-16**

Jose Mari Kortazar

Mintegi lana

Gasteizko Teologia Fakultatea